

# jokulariak96

EUSKAL AKTOREEN BATASUNAREN BOLETINA  
BOLETÍN UNIÓN DE ACTORES VASCOS  
maiatza 2015 mayo

## EABk Antzerki ikasleei konbenio bilduma aurkezten die



## sumario

- 3 Aktorearen erabateko biluztasuna  
KEPA ERRASTI
- 4 EAB nos presenta el libro de convenios a los alumnos/as del TAE de Donostia  
ANA PÉREZ
- 5 Eszenikaren aldeko plataforma: etapa bukaera  
BELÉN CRUZ
- 6 Cooperativas  
GURUTZE BAZTARRIKA
- 7 Novedades en ConArte  
MIRIAM MARTÍN

## kurtsoak



### INTERPRETAZIOA KAMERAREN AURREAN

Ikastaroa Zazpi T'erd  
Pello Gutiérrez eta David Aguilar

**Tailerraren iraupena**  
**Bi asteburuko ikastaro trinkoa:**  
10:00-14:00/15:30-19:30

**Datak:** ekainak 6-7  
eta ekainak 13-14

**IKASTAROAREN  
LABURPEN TXIKIA**

Ikusentzunezko arloak aktore teknika zehatz eta neurtuak eskatzen ditu. Filmaketaren mekanika ezagutzeaz gain, interpretazioak behar teknikoe-kin lotura handia dauka: erabilitako objektiboak, soinua, kamera mugimenduak, planoetan banaketa, etab. Teknika horiek ezagutzea ezinbestekoa da ikusentzunezko arloan interpreta- zio lan egokia egiteko.

Eraberean, kamerak aktorea- ren maskara, gezur eta falt- sukeriak agerian uzten ditu. Hemen, beste edonon baino gehiago, benetazko emo- zioekin egin behar dugu lan, gure interpretazioak egia erakutsi behar du.

"Interpretazioa kameraren aurrean" tailerren bi oinarri horien gainean lan egin nahi dugu: kameraren aurrean lan egiteak eskatzen duen lan teknikoa eta lan artistikoa.

Tailerren beste filmen esze- netan oinarritu ordez, film labor kolektibo bat sortuko dugu, tailerarentzat bereziki idatzia. Sekuentzia bakarra-

ren gainean lan egingo du bikote bakoitzak.

**TAILERRAREN HELBURUAK**  
- Antzezleei ikusentzunezko arloan erabiltzeko teknikak eskeini

- Kamera, objektibo, iluminazio edo soinu desberdinen ara- berako interpretazioa neurtu.

- Filmaketaren mekanika ulertu.  
- Kameraren aurrean antzez- teko modu desberdinak saiatu, eta bakoitzean jasota- ko emaitza aztertu.

**IKASTAROAREN EGITARUAU**  
**Ekainak 6, larunbata:**

- Goizez: Aurkezpena, ant- zezpenari buruzko ikastaro teoriko txikia, kameraren aurrean ariketa.

- Arratsaldez: Gidoien irakur- keta, paperen banaketa. Filmaketaren prestaketa, lokalizazioak bilatu.

**ENSAIOAK**

**Ekainak 7, igandea**

- Goizez: Filmaketa 1

- Arratsaldez: Filmaketa 2

**Ekainak 13, larunbata**

- Goizez: Filmaketa 3

- Arratsaldez: Filmaketa 4

**Ekainak 14, igandea**

- Goizez: Filmaketa 5

- Arratsaldez: Filmatutakoa ikusi. Edizio ariketa txikia.

Ikastaroa amaitutakoan film labor editatua emango zaie ikasleei.



EUSKAL AKTOREEN  
BATASUNAREN BERRIPAPERA

DONOSTIA  
Portuetxe nº 23 A  
4º Planta ofic. 4/08  
20.018 DONOSTIA  
Tel. 943 31 48 22

BILBAO  
Bilbo Eszena  
c/ Juan de Gardeazabal 3  
(entrada por c/Fica)  
BILBAO 48.004  
Tel. 944 33 37 86

admon@actoresvascos.com  
www.actoresvascos.com

**Koordinazioa, edizioa** Belén Cruz  
**Maketazio, diseinua** Iosune Fernández

Gogoratu alkizkari hau denona dela eta gustura hartuko genituzkela zure iritsi eta artikuluak.  
Recordad que esta revista es de todos y que gustosamente recibiremos tus opi- niones y artículos.



Jostalari peto-petoa,  
ume handia, borrokalaria.  
Zure hutsunea sumatuko  
dugu oholtza gainean.

Beti izan da luxua  
zure lanarekin gozatzea.  
Atsekabe handiarekin agurtzenzaitugu.  
Zure barre eta adar jotze  
etengabeak gogoratuko ditugu.  
Besarkada bat, lagun eta lankide.

**EAB**

Argazkia **Mara Cozar**

# AKTOREAREN ERABATEKO BILUZTASUNA



*Produkzio kuriooa izan dugu aurtengo Dferian ikusgai. "Teatro Solo". Bost pieza txiki berezitasun komun batekin; ikusle bakarra aktoreen parean. Esti Curiel, Mary Zurbano, Naiara Arnedo, Tessa Andonegi, Julen Vega eta Chema Tena dira esperientzia berezi hau ezagutu duten aktoreak. Matias Umpierrez argentianarraren zuzendaritzapean aritu dira lanean. Beraietako batzuekin hitz egiteko aukera izan dugu ikuskizun bitxi honetako bizipen, sentsazio eta anekdotak gertutik ezagutzeko.*

Mahaiaren bueltan dauden lau aktoreak ados jarri dira sekulako esperientzia izan dela esaterako orduan. "Aktorearen erabateko biluztasuna" bezala deskribatu dute. "Biluzik egotea bezala da. Emozionalki dena ematen duzu eta gehienetan ez duzu hainbeste jasotzen trukean" dio Tessa Andonegik. Hala ere, bizipen errepikaezina izan dela azaldu du eta asko balio izan diola. Ikusleagandik jasotakoa erlatibizatzen ikasi dute; egiten ari diren lanean konzentratu eta momentua bizitzen. "Jendeak desberdin erreakzionatzen du aldi bakoitzean eta batzuetan itxurak baino ez dira. Askotan uste duzu parean dagoena asperitzen ari dela, eta primeran pasatu du. Lanarekin disfurtatzen egon beharrean, ikuslearen erreakzioei begira galten dugu denbora" aitortu du Esti Curielek. Zentzu horretan, sekulako eskola izan da "Teatro Solo" proiektua lau aktoreentzat.

Aipatutakoaz gain, inprobisaketarako gaitasuna ere eskatzen zuen erronka berezi honek, eta hori izan da ikasi duten beste gauzetako bat. Prest egon behar ziren lekuz kanpoko erreakzioen bat jasotzen zutenerako. Aktore bezala bizi-bizi egotea eskatzen zien proiektuak. Mary Zurbanok dioen bezala "guri behin gertatu zitzaigun ikusle bat hainbeste sartu zela, istorioa benetan sinetsi baitzuen. Ikuskizun bezala egitura bat genuen, baina ikusle honek hankaz gora jarri zigun egitura guztia. Ohean eseri zitzaigun, hizketan hasi zen, erre egin zuen, galderak egin zizkigun..." Larritasun ederra pasa arren polita eta berezia izan zela ere aitortzen du. "Kasu horietan pentsatzen duzu; ahaztu egingo zitzaion antzerkia dela?" galdetzen dio Estik bere buruari. Bi aktore hauek elkarrekin egiten zuten pieza, eta irribarez gogoratu dute nola pare bat aldiz, bukatzerakoan, ikuskizuna egiten ari ziren etxeko atea itxi, eta ikusle pare bat txaloka geratu ziren eskailetan. "Egia da batzuetan ez duzula nahi duzun erreakzioa jasotzen, baina jasotzen duzunean, eta ikusleak zuk ematen diozuna beste ematen duenean, oso polita da" onartu du Julen Vegak. Pena daukate kaleko jende gutxi hurbildu zelako. Gehienak progaramtzaileak izan omen ziren eta normalean askoz hotzagoak izaten omen dira hauek. Sekula horrelako bizipenik izan gabe zeuden. Publiko gehiago dagoenean dena aldatzen dela esaten dute lauek. Kasu honetan ikusle bakarra zuten eta parez pare eserita. "Sekulako kozentrazio maila eskatzen du horrek. Oso lan gordina da, ageri agerian zaude" dio Tessak. "Antzokietan, eta baita tabernetan ere, distantzia bat daukazu publikoarekin eta horrek babestu egiten zaitu nola-bait. Hemen ez" gehitu du Maryk.

Lau egunetan aritu ziren ikuskizuna egiten. Egunean zortzi orduz, eta ordu erditik ordu erdira ikusle berri bat jasoz. Julenek dioenez, "Niri motza egin zitzaidan. Gozaten hasi nintzenerako, bukatu egin genuen. Hasieran asko kritikatzan nuen neure burua". Horretaz gain, funtzioaren bat gaizki atera eta jarraian beste bat zuela pentsatzea oso gogorra egiten zitzaiola aitortu du eta horregatik lehen egunak nahiko gogorrak egin zitzaikiola. Maryk hala ere gaineratu du, "Egia da lau egun gutxi direla, baina egunean zortzi orduz eta emozionalki hain potentea izanda, leher eginda bukatzen duzu". Testuak kasu gehienetan bakarrizketak izan arren, lehen entseguak elkarrekin egin zituzten; entrenamendu fisikoa batez ere. Ariketa fisikoekin hasten zituzten lehen egunetakoak eta gero testua gehitzen zioten. Funtzioetan jasan ahalko zituzten erresistentzia fisiko zein mentaletarako prestatzea zen entseguen helburua. Edozein egoeratan erreakzionatzeko gertu egotea. Kozentrazioa landu zuten; alerta egoeran interpretatzea. Izan ere, kasu batzuetan ikuskizun lekuak jende asko pasatzen diren gunek ziren (eskola, antzokia, tren, kalea) eta edozer gerta zitekeen; jendeak hitz egin, ezagunen bat ikusi... "Egoera hauetan ohartzen zara zenbat baliabide ditugun aktore moduan; harritu egiten zaitu zeure buruak" aitortu du Tessak. Hala ere, denek diote oso zaila dela ustegabeak aurreikustea. Entseguetan askotan espero gabeko galdera sinpleak egiten zizkien zuzendariak erreakzio gaitasuna lantzeko. "Galdera posible guztiak egin zizkizula uste zenuenean, berri bat egiten zizun" azaldu du Julenek barre artean.

Denbora luzez horrelako zerbait egiten arituko ote ziren galdetzerakoan baietz erantzun dute denek, baina astean egun gutxiagotan eginez gero. Egunean hainbeste emaldi egitea nekagarria dela aitortzen dute batzuek. Hala ere, aktore lan bezala esperientzia zoragarria dela azpimarratu dute.

Dferiatik kanpo horrelako "esperimentu" bat progaramtzeari etorkizuna ikusten dioten zalantza egiten dute. Argi dute ikuslearentzat oso interesgarria dela, baina ez dakite errentagarria izango litzatekeen. "Kontuan hartu ez dela ordu erdiko funtzioa. Sei orduz zaude publiko aurrean. Ezin da konparatu egitera ohituta gauden lanekin. Zaila ikusten dut errentagarria izatea." Hala ere, gogoratu dute zuzendariak esaten zela proiektua ez zela egin errentagarri izateko. Ikuslearentzat opari bat bezala hartu behar zela eta halaxe dela uste dute denek.

**Kepa Errasti**

Mary Zurbano, Esti Curiel, Kepa Errasti, Julen Vega eta Tessa Andonegi. Argazkia **Gurutze Bazarrrika**



Argazkia Kepa Errasti

## EAB PRESENTA EL LIBRO DE CONVENIOS A LOS ALUMNOS/AS DEL TAE DE DONOSTIA

*El 14 de abril, tuvo lugar la presentación de Euskal Aktoreen Batasuna/Unión de Actores y Actrices Vascos EAB, en el Taller de Artes Escénicas de Donostia*

Con la idea de dar a conocer, de una manera cercana y lo más realista posible, información referida al funcionamiento de las contrataciones en el ámbito laboral profesional dentro del sector Audiovisual y de las Artes Escénicas, el 14 de abril en el Taller de Artes Escénicas de Donostia, tuvo lugar la presentación al alumnado de la labor que EAB, como Sindicato representante de los profesionales en el ámbito audiovisual y escénico, viene desarrollando en el territorio autonómico.

La charla se inició haciendo un recorrido de las acciones sindicales ejecutadas a lo largo de la historia por el sindicato EAB. Más tarde se presentó el Libro informativo donde están reguladas las tarifas conseguidas en el Acuerdo Autonómico de Teatro, en el Acuerdo Autonómico del Audiovisual y el Convenio Estatal del Audiovisual.

La presentación fue seguida con mucho interés por el alumnado que rápidamente entró a plantear dudas y aclaraciones con respecto a los términos, tarifas o clasificaciones de las que se hablaban. Cuestiones que fueron resueltas por Gurutze Baztarrika, abogada del Sindicato EAB y Belén Cruz, miembro de la Junta Directiva.

Dos horas de coloquio dieron para mucho, ofreciendo la mayor información posible para las cuestiones surgidas en el momento. Tanto Gurutze Baztarrika como Belén Cruz, hicieron de esta charla, que a priori pudiera parecer farragosa, algo cercano, con datos y experiencias a la orden del día y vinculando la información al funcionamiento en cualquier otro sector laboral en cuanto a derechos y obligaciones que en nuestro caso, como artistas, nos ampara. Belén y Gurutze: muchísimas gracias por vuestra labor y disponibilidad.

**Ana Pérez** Coordinadora de TAE Donostia

# ESZENIKAREN ALDEKO PLATAFORMA: ETAPA BUKAERA

Pasa den apirilaren 1ean, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntz Politika eta Kultura Sailak jakinarazi zuen Dantzerti, Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantza Goi Mailako Eskola datorren 2015-2016 ikasturtean jarriko dela martxan. Antzerkia eta Dantzaren alorreko sektore profesionalaren ia-eremu guztietatik aldarrikatu den eskaerari erantzuna eman zaio horrela, hain zuzen ere orain 10 urte batu gintuena Arte Eszenikoen Goi Mailako Eskolaren aldeko Plataforman, ondoren Eszenikaren aldeko Plataforma bihurtu zena.

Denbora tarte honetan zehar, Euskadin izan diren Jaurlaritza desberdinen mahai gainean jarri dugu irakaskuntza publikoak eszenaren alorreko lanbide espezialitatei titulazioak eta kalitatezko hezkuntza eskaintzearen premia. Begibistakoa irudi dezake aktore, dantzari, aretoko teknikari edo eszena zuzendari izatea ikasi eta ondoren etengabe bitzita osoan zehar hobetu egin behar den lanbidea dela, beste edozein ogibide bezala, baina ez da erraza gertatu alorreko eskuduntzak dituzten administrazioaren erakundeei horien beharra eta erabilgarritasuna ikustaraztea. Zalantza, duda-muga, aurrerako eta atzerako pauso ugari izan dira urte guzti hauetan.

Ikasketa zentro berriaren jaiotzak erantzuna ematen dio, hasteko, aktore eta aktorea kopuru txiki baten formazioari, eta dantzari eta koreografo multzo bati. Pentsatzekoa da, edo gutxienez horixe formulatu nahiko genuke desio moduan, datozen urteetan espezialitate berriak irekitzen joango direla, eta bidean alboratuta geratzen joan diren beste zenbait eskaera bideratzen joango direla: ikuskizunetako teknikaren formazioa, gaur egungo sortzaile eta interpreteen etengabeko formazioa, arte eszenikoei buruzko dokumentazio zentroa, graduatuei bitzita profesionalean txertatzeko aukera eskainiko dieten ekoizpen egiturak...

Konstantziaz eta irmoki landutako etapa baten helburuak betetzeagatik gure burua zorientzeaz batera, ezin dugu ezkatuta azken txanpa honetan proiektua ez dela

- ▶ **EAB** Euskal Aktoreen Batasuna
- ▶ **ESKENA** Euskadiko Produkzio Eszenikoen Enpresa Elkartuak
- ▶ **ATAE** Arte Eszenikoen Teknikarien Elkarte
- ▶ **ADDE** Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkarte
- ▶ **AAT** Antzerki Autoreen Elkarte
- ▶ Euskal Herriko Gidoigile Profesionalen Elkarte
- ▶ **EHAZE** Euskal Herriko Antzerkizale Elkarte
- ▶ **ARTEKALE** Euskal Herriko Kale Arteen Elkarte
- ▶ **PANTZERKI** Bilboko Txotxongilo Arteetako Dokumentazio Zentroa (Txirlora Elkarte)
- ▶ **APDG** Gipuzkoako Dantza Profesionalen Elkarte
- ▶ **DANTZAZ** Elkarte
- ▶ **DANTZAN.COM** Dantza sustatu eta hedatzeko Elkarte
- ▶ **ÁNIMA** Bilboko Antzerkia eta Zinemaren Eskola
- ▶ **ARTEBI** Musika, Arte Eszeniko eta Ikus-Arteetako Bilboko Eskola
- ▶ **EAT** Gasteizko Eszena-Arte Tailerra
- ▶ **AET** Donostiako Arte Eszenikoen Tailerra
- ▶ **UTOPIAN** Getxoko Antzerki Eskola
- ▶ **ORTZAI** Antzerki eta Zinema Laborategia
- ▶ **BAI** Bizkaiko Antzerki Ikastegia
- ▶ **YINDEYAN** Nazioarteko Laborategia
- ▶ **TELESKOPIKA** Ikerkuntzarako Gunea
- ▶ **KABIA** Ikerkuntzarako Gunea

partekatua izan. Urteotan, inori ordainik eskatu gabe euskal eszenarentzat formazio eredu egokiena definitzen lagundu nahian ideiak, azterketa-lanak eta proiektuak eskaini ditugunok, ezer gutxi dakigu gaur zentroak izango duen funtzionamenduari buruz, bere hezkuntza proiektuari buruz, apustuaren sakontasunari buruz, epe luzerako asmoei buruz, sinergia asmoei buruz, gure herriko sormen ehunduran txertatzeko estratergiei buruz... Alegia, ezer gutxi dakigu Dantzertiren arimari buruz, ikusi ahal izan ditugun dekretu zirriborron biluztasunetik haratago. Guretzat, artisten hezkuntzan aritu behar den eskola baten muina teknika batzuen transmisio soila gainditzen duen kontua da. Talentua antzeman, babestu, hazten lagundu eta balio sinboliko handia duen testuinguruan kokatzea da, Antzerkia eta Dantza komunitate baten kulturaren osagai eratzailak baitira.

Ez dakigu nolakoa izango den eszenarako formazio zentro berria, baina badakigu zer etorri garen aldarrikatzen eta zer defendatzen dugun albora utzi ezinezkotzat: Kalitate altuko heziketa eskainiko duen zentro bat, jarduera profesionalera bideratuko dituen ikasleak, jakinik horrek berezko dituen zailtasun eta eskakizunak. Antolaketa eta pedagogia autonomia izango duena, eta gaitasun eta eskarmentu handiko irakasle taldearekin. Euskal eszenarekin, profesionalekin eta sortze eta ekoizte egiturekin estu lotutakoa.

Disziplinartekoa eta joera artistiko garaikideetan txertatua, estetikaren ikerketan arituko den, eta hezkuntza eta sorkuntza eszenikoan diharduten beste nazioarteko zentroekin etengabeko elkarriketan arituko dena, aldi berean euskal kultura tradizionalaren adierazpen mota desberdinen ikerketan sakonduz eta baliatuz.

Komunitatean inplikaturak eta sormena eta Arte Eszenikoekiko zaletasuna sustatzeko gai izango dena, arte hauen praktika eta profesional bokazioak normalizatutako jardura izan daitezten.

**Belén Cruz**



# Cooperativas

Es muy frecuente que los actores y actrices se propongan emprender y poner en marcha proyectos artísticos interesantes, produciéndolos y distribuyéndolos ellos mismos. Es más frecuente, sobretodo, teniendo en cuenta que en los últimos años no abunda la contratación por cuenta ajena, ante la escasez de proyectos y/o ayudas profesionales. Este interés por emprender y avanzar en un proyecto se puede ver condicionado porque los promotores son personas físicas que no encuentran la entidad necesaria, a la jurídica me refiero, para canalizar sus proyectos. Posibilidades hay y de hecho más de una vez os hemos informado a los que la habéis pedido sobre fórmulas diferentes para que pongáis en marcha un proyecto y lo distribuyáis después, sin tener ningún problema técnico o legal. Así, los actores y actrices se agrupan en Asociaciones culturales, en sociedades civiles, se dan de alta en autónomos. Por lo que podemos comprobar, la asociación cultural es la forma de organización más empleada por sus bajos costes económicos ya que sólo se hacen altas y bajas los días que se trabajan en el régimen de artistas. Pero ahora quería hablaros de las cooperativas como manera de organización empresarial. En Euskadi hay empresas cooperativas de teatro que llevan funcionando desde hace años. Sin querer entrar en valoraciones sobre si es una forma empresarial idónea, mejor o peor que otras que hay, sí es para informar dentro de nuestras cortas posibilidades sobre esta modalidad.

Lo primero que tenemos que decir es que las cooperativas vascas se regulan:

- ▶ Por ley 4/1993 de 24 de junio de Cooperativas de Euskadi
- ▶ Modificación parcial de la ley anterior por la Ley 1/2000 de 29 de junio
- ▶ Decreto 58/2005 de 29 de marzo, que regula el Reglamento de la Ley de Cooperativas de Euskadi.
- ▶ Además de las normas anteriores, cada cooperativa se regula además por sus Estatutos Sociales, el Reglamento de Régimen interno y los Acuerdos internos.

Por otro lado, es interesante decir que existe una cooperativa, ELKARLAN, que se ocupa del asesoramiento gratuito para la constitución de cualquier cooperativa.

De esta entidad hemos obtenido información que no podemos transmitirla toda de una sola vez pero sí tenemos un aspecto que nos interesa resaltar porque puede ser interesante para los artistas que quieren empezar de manera legal para con ellos mismos y para con los que les contraten pero teniendo que reducir los gastos al mínimo porque no tienen otra posibilidad.

Refiriéndonos a esto y sobre la Seguridad Social, la Ley de cooperativas establece la posibilidad de estar de alta en Régimen general o en el de autónomos, pero a diferencia del régimen de artistas que permite dar de alta y baja en seguridad social sólo los días de trabajo, en las cooperativas, los socios han de estar de alta, como os digo, o en autónomos o Régimen general pero mientras que son socios ininterrumpidamente.

Queda preguntarse ¿y no podríamos adaptar el régimen de artistas para las cooperativas? ¿no podríamos conseguir cotizar a artistas sólo los días que trabajábamos en una cooperativa?

No somos en EAB los únicos que tenemos inquietud sobre esta adaptación de la Ley de Cooperativas para integrar al colectivo de artistas, manteniendo los aspectos diferenciados que en la norma 2621/1986 se establecen. En concreto y la más importante es que la Ley de Cooperativas permitiera a las cooperativas de trabajo artístico, a sus socios permanecer bajo esta forma jurídica, sin necesidad de estar permanentemente dados de alta en el Régimen general de la Seguridad Social o en el de autónomos, es decir, estar de alta sólo los días de actividad.

Para esta adaptación sería necesario que la Seguridad Social adaptara las cotizaciones a esta peculiaridad de los artistas y por lo tanto es una modificación que afecta a la competencia del Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, fuera del ámbito pues de Comunidad Autónoma.

En el próximo boletín expondremos cuales son las características, el procedimiento de constitución y otras particularidades de las cooperativas pequeñas, que por las dimensiones y nº de socios integrantes, mejor podría adaptarse a la realidad de los grupos artísticos impulsores, promotores, productores y distribuidores de espectáculos públicos.

**Gurutze Baztarrika** Abogada del Sindicato

# Novedades en ConArte

Haciendo un breve repaso a la historia de ConArte para aquellos que lo desconocéis: ConArte surge tras diez años de esfuerzo y trabajo para confederar a todas las asociaciones, sindicatos, organizaciones... que tenemos cabida en el mundo de las artes escénicas; así en noviembre de 2014 nace con la participación de los integrantes de los que hasta entonces integraban: OSAEE (Cataluña, Valencia, Baleares, Aragón y Euskadi) y FAEE (Madrid, Andalucía, Málaga, Castilla y León, Asturias, Murcia y Canarias). Surge con la idea de crecer y de todos aquellos que sientan que deben formar parte de esta confederación vayan anexionándose hasta constituir una formación que nos una a todos, para así tener más fuerza y poder luchar por unos intereses comunes.

Durante el primer año de andadura se dieron una serie de dificultades para entendernos y dentro del consejo de dirección se crearon una serie de diferencias a la hora de enfocar e intentar arrancar con este trabajo común que a EAB nos llevó a pensar que quizá no debíamos formar parte de la confederación, nos era muy lejano y distinto el planteamiento de objetivos.

Como sabéis, convocamos dos asambleas: una en Donostia y la otra en Bilbao para haceros partícipes de lo sucedido y comunicaros así mismo que Madrid y Aragón se habían ido.

Pues bien, en marzo se convocaba un Congreso extraordinario debido a que la junta ejecutiva se había quedado inoperativa debido a la dimisión o la salida de tres de sus cinco miembros. EAB asistía a dicho Congreso con poca fe, la verdad, no pensábamos que fueran a cambiar las cosas, sin embargo nos encontramos con la necesidad de dar un poco de tiempo a la nueva ejecutiva ya que así se nos pidió expresamente.

El pasado 27 de abril el Consejo se reunía de nuevo para marcar directrices y volver a reflotar este tocado barco. Por el camino se han perdido cosas importantes. Este año la subvención de Aisge es significativamente menor que el año pasado. ConArte vive un momento económicamente muy débil pero también es cierto que los errores cometidos durante el primer año, (gravísimos en mi opinión), han servido para corregir y reconducir la dirección. EAB siente ahora que sí comparte la misma visión acerca de cómo y para qué debe existir ConArte.

Vemos cómo lo que a nuestro entender son prioridades se ponen en marcha con nuevas ganas y nuevo ánimo. Parece que en poco tiempo podremos firmar el convenio audiovisual y que en dicho convenio por primera vez se nos reconozca como sindicato con una tercera parte, llevando a la firma: 3 de Comisiones obreras, 3 de UGT y 3 nuestros (2 de ConArte y 1 Madrid). Seguimos, pues, de momento formando parte de ConArte.

**Miriam Martín** Consejera de EAB en ConArte



## Servicios en los que puedes obtener descuento con el carné de EAB

### GIPUZKOA

Arropa denda	Berriz	-10%	Hondarribia, 30. Donostia	
Diseño web	Gabekin	-15%	info@gabekin.com	943 192411
Esteticien	Donna	-10%	Arrasate, 33. Donostia	943 422077
Fotógrafo	Kote Cabezudo	-10%	kote@fotokoma	609039069
Fotógrafo	Sylvia Scholtens	-10%		605744593
Fotógrafo	Laura 10M Foto	-10%	Estación 1. Urnieta	656747018
Maquillaje y peluquería	Ainhoa Eskisabel	-15%	ainhoaexki@hotmail.com	630070782
Logopeda y foniatra	Carmen Quiñones	-10%	Avda.Tolosa, 95. Donostia	943 313974
Pensión Basic Confort	Isabel	-15%	Calle Puerto, Donostia	608687658
Reportaje vídeo y copia	Zumeta	-10%	videozumeta@euskalnet.net	943 469683
Shiatsu esku terapia	Nagore Orbeltzu	-15%	nagoretan@hotmail.com	680877231
Tai Chi Chuan eskola	Juan	-10%	info@taichichuaneskola.com	943 423757
Videobooks	Desiderata	-10%	desiderata@ya.com	666427897
Videobooks	Zazpiterdi	150€	zazpiterdi@gmail.com	657727859

### BIZKAIA

Aldizkaria	Artez	40€	artez@artezblai.com	94 4795287
Asesora de Belleza	Begoña	-10%	begolas-m@hotmail.com	646930272
Danza	La boutique de la danza	-10%	Belostikale, 12. Bilbao	94 4167954
Disfraces	El disfraz	-10%	La Torre, 9 y Perro, 8. Bilbao	94 4164771
Escenografía y atrezzo	Urdai-art	-20%	artemartillazos@yahoo.es	94 6258528
Escuela danza	Inés Uriarte	-20%	Nervión, 3-40. Bilbao	94 4230299
Estudio grabación	Belan	-20%	Aldapa, 1-bajo B. Barakaldo	94 4372462
Fotógrafo	Carlos Terreros	-40%	www.carlosterreros.com	610382821
Fotógrafo	J. Jesús Sanz	-40%	WWW.euskalnet.net/juanje/	617596588
Fotógrafo	Maite Oñederra	-40%	Urzurrutia 19, escalera muelle. Bilbao	94 4166736
Hotel	Hotel Arriaga	-45%	Rivera 3	94 4790001
Librudenda	Yorick	-5/25%	San Francisco. Bilbao	94 4795287
Maquillaje	Alicia Suárez	-10/30%	Amistad, 6. Bilbao	94 4232208
Osteopatía y masaje	Gorka Madariaga	-60%	Erzila, 42-20 Izda. Bilbao	676088303
Peluquería	Glamuforia	-10%	La Rivera 2. Bilbao	94 4790992
Reflexion podal y osteopatía	Iam Agorria	-20%	Elorrio	94 6820604
Taller de la danza	Muelle 3	-20%	Muelle de la Merced 3-40 Izda. Bilbao	94 4163383
Videobooks	Makiaudiovisual	150€	makiaudiovisual@telefonica.net	696971793
Videobooks	Bilbkasting	-10%	info@bilbkasting.com	94 4329300

### ARABA

Estética facial y corporal	Geli D'Mora	-10%	Eduardo Dato, 31-4aB. Gasteiz	945 142335
Hotel	Cadena Hoteles USA		Información EAB Bilbao	94 4333786
Librería	Casa del libro Axular	-5%	Arka, 11. Gasteiz	945 158175
Perfumería	Etxeberria	-10%	Dato, 13. Gasteiz	945 231521
Videobooks	Argiarte	150€	yolandalzheredia@gmail.com	686384426

### Teatro

Barakaldo	50%	Ermua	50%	T. Municip. de Donostia	10%
Durango	25%	Gernika	30%	T. Municip. de Gasteiz	20%
Eibar	50%	La Fundación	20%	Zornotza/Amorebieta	25%
Elorrio	50%	T. Arriaga de Bilbao	50%	Zumaia	50%

